



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2017/06/30) Hurrengo saioa: 2017/07/14	Erretaularen errestaurazioa	Andamioak uztailaren 5ean muntatzea etorriko dira. Uztailaren 7an desinsektazioa egingo da. Uztailaren 10ean, errestaurazio lanak hasiko dira	Herrian dohaintzak jasotzeko aukera Eliz juntak zabalduko du
	Udalekuen jarraipena	Udaleku artistikoak aurrera darrai eta datorren astekoa (Ibur zalditegia) lotuta dago eta Kirol asterako proposamena lantzen ari gara (Zerkik egindako proposamena: 2 egun kirol-anitza, 1 Itsason txangoa, 1 Ormaiztegiko igerilekura eta... txirrindu irteera???)	Zerkikoarekin azken egitaraua finkatzea (Alegiko elkarteari komuna erabiltzeko eskaria luzatu)
	Kirol ekintzak eskatzeko /aukeratzeko inkesta	Itsaso, Ormaiztegi, Ezkio eta Gabiriaren artean kirol eskaintza bateratua sortzeko saiakera abian da	Zerkiren proposamena aztertuko eta plangintza egin
	Kirol azpiegiturak	Alegiko frontoia eta Ostatu azpiko gazte lokala erabilgarria litzateke. Hezetasuna tratatu (deshumifikadorea), ate azpian barrera jarri, armairua kendu eta leiho batean sarea jarri.	Aipatutakoak garatzen joan
	Marimurumendi-Kizkitza	Uztailaren 8an: materiala, kontrolak, anoa postuak eta boluntarioen antolaketa. 9rako Kizkitzako ardura desberdinetan, Arrobian eta Mandubian	10an seinale bilketa Itsasoko partean.
	Anbientalia 21	Nekazaritzako lurak eskualde mailan aztertu eta suspertu	Agian herri batzarrerako aztergaia



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2017/07/01) Hurrengo saioa: 2017/07/15	Alegiko ranparen berri ematea	Alegiko ranparen egitura dagoeneko prest dago losetak, baldosa eta barandilla jartzeko (material hauek aukeratuta daude eta epe motzean jarriko dira). Aldapan loseta joango da eta sarrerarekin bat egiten duen gunean (sarreran barne) baldosa joango da. Egurtegirako pasadizoa egon dadin, ate bat jarriko da eta atearen parean eskailera bat, erabili behar denean bakarrik jarriko dena. Zabor ontziak parkearen proiektuarekin batera birkokatuko dira.	Estik jolas parkerako eta ingururako prestatutako proposamen desberdinak aztertu eta egokiena dena aukeratu.
	Baseri bideetako diru laguntzen berri ematea	Ariolarako eta Albitsuko bideak berritzeko edo konpontzeko diru-laguntzaren berri jakin dugu (29.000€). Aurrekontuak 3 enpresa desberdinetan eskatu dira baina bakarra jaso da oraindik.	Aurrekontuak aztertu.
	Ostatuko pleguak aztertzea eta proposamenak egitea	Manuk egindako proposamenak aztertu ditugu: Inbertsioen kapituluan hozkailu berri bat jartzea, parrilla bat jartzea eta su parean dagoen estraktorea luzatzea. Mantenuari dagokionez (Manuren ardura), sukaldeko tresna desberdinetarako aldizkako errebisioak kontratatzea, sukaldeko sabaia margotzea eta ke-detektagailuak martxan izatea. Udako eta neguko ordutegia desberdintzea (ordu aldaketarekin batera) eta berau jendaurrean jartzea.	Parrilla, Manuk jarri nahi duen lekuan teknikoki posible den aztertu. Diputazioarekin etxebizitzaren sarrera eta Udalaren erabilpen guneetarako berrikuntza aurrerabideak zehazten joan. Herriko produktuen salmenta-azoka proposamenak jorratzen joan.



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/07/04)	Etxeetara telefono zerrenda	Etxeetara banatu beharreko telefono zerrendarekin bukatu da eta familietara banatzeko prestatu da	Etkez etxe banatu
	Goierriko Hitzarako festa iragarkiak	Madalena, San Bartolome eta Kizkitzako festetarako iragarkiak prestatu	Iragarkiak bidali
Hurrengo saioa: 2017/07/18)	Web orria	Menu osoa egina dago eta azpi egitura ere bai. Hasi gara eztabaidatzen gure herriaren erreferentzia nagusiak zein diren edo izan daitezkeen. Erabili ditugun lehen ideiak: partaidetza, ekimen kolektiboak, gardentasuna, emangarritasuna, itsasargia, auzolana...	Lema orokorra proposatu, zertan izan gaitzkeen erreferente eta bi publiko motentzat (herrikoa eta herriz kanpokoak) atal nabarmenduak pentsatu